



Segurrez Altzain izango da.

Urtarrilean maskarada egingo dute Zuberoan

ALLANDE SOKARROS / BAIONA

Ibar Esquinak, erran nahi bait da Altzai eta Lakarri eta inguruko herriak, maskarada berria jokatu du datorren urtearen hasieran, atzo Zuberoako Botza euskal irratian iragarria izan denez. Azken maskarada Muskildiko herriarena izan zen 1989 urtean, eta beraz urte bat egon da egin gabe. Gaurkoan dakigunez, urte berriaren urtarrileko lehen igandean izanen da lehen emanaldia, Altzain bertan segurraz ere. Ondotik hamar bat ateraldi egin behar lezakete jokolariek. Jakingarri da heldu den urtean ere Larrainek antzetzuko duela Roger Idiart apezak idatzi pastoralak.

Bilboko Txotxongilo IX. Jaialdian berrogeitamazazpi lan agertuko dira

Arriaga, Ayala, Boulevard kagetegia eta Barrainkura aretoan

Bilboko Nazioarteko IX. Txotxongilo Jaialdia datorren igandean hasi eta hilaren 20ra arte luzatuko da. Berrogeitamazazpi lan aurkeztuko dira bertan, Euskadiko Txotxongiloen IV. Agerketa eta 'Off Jaialdia' egitaraukoak barne.

ZORION ZAMAKOLA / BILBO

Hain zuzen ere 'Off Jaialdia' atal hau lehenengoz agertuko da eta parte hartzeko eskakizuna egin duten talde guztiei lekua uztearren sortu da, atzo eginiko prentsaurrekoan Mikel Ortiz de Arratia Bilboko kultur zinegotziak azaldu zuenez.

Horrela, kalitate neurri egokiak bete dituzten taldeek Jaialdi Ofizialean hartuko dute parte eta beste guztiak 'Off' honen barruan sartuko dira.

DOKUMENTAZIO KONGRESUA BIDEBARRIETAN

Era berean, lau urtean egin ez bada ere, aurtengoan 'berpiztu' egin da Euskadiko Txotxongiloen agerketa; laugarren edizioa izango du. Sail horretan



Ortiz de Arratia zinegotzia eta De la Casa jaialdiko zuzendaria. KEPA GONZALEZ

Hegoaldeko hamabi taldek hartuko dute parte, guztira hamazazpi lan eskaintzeko. Euskadiko Agerketako lanetatik zazpi euskaraz izango dira eta beste hamarrak gaztelaniaz.

Bilboko IX. Jaialdian aurkeztuko den lehen lana Zaire-Belgikako Nain Jaune-Fondation Ghelderode taldeak eskaintako 'Azien eskola' izango da, datorren astelehena 9an, gaueko 20'00etan Arriaga antzokian.

Aurtengo saioan aurkeztuko diren berrogeitamazazpi lanetatik hoge-

tamabost gaztelaniaz izango dira, bost euskaraz, hamar mutuak, hiru frantsesez, bi musikalak eta bana, zaireeraz eta danesez.

Jaialdiaren inguruan txotxongilo ekitaldiez gain, inguruko beste gauza batzuk ere aurkeztu dira. Hain zuzen ere Ortiz de Arratia zinegotziak azpimarratu zuen Bidebarrieta liburutegian burutuko den Txotxongilo Dokumentazio Egoitzen Nazioarteko I. Kongresua. Dokumentalista eta zuzendari zenbaitek hartuko du parte bertan.

Ridley Scott zinegileak 'Cristobal Colón' errodatu nahi du

AMSTERDAM

Holandako zine produktora bat 'Cristobal Colón' izenezko filmea errodatzen ari zenean, Ridley Scott zinegileak eta Pariseko ekoizle batek ere 'Cristobal Colón' izeneko filme proiektua agertu dute. Istiluak eztanda egin du, holandarrek 200 milioi liberako (4.000 milioi pezeta inguruko) eskaria egin bait dute izenburua eta ideiarekin lapurretatutik.

Milan Kundera-ren 'La Plaisanterie' nobela filme bihurtua

PARISE

Jaromil Jires zinegilea bere adiskide Milan Kunderaren 'La Plaisanterie' nobelan oinarritutako filmea errodatzen ari da. Ludwik Jahn zientifikoaren bizitza kontatzen du. Zientifikoa kazetari komunista batekin maiteminduko da, baina tanke sobietarrak Txekoslovakiara sartzen direnean,

SAUTRELA

Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara.

O Heuskara, lauda ezak Garaziko herria,
Zeren hantik ukhen baituk behar duyan thornuya.
Lehenago hi baitintzan lengoajetan azkena,
Orai aldiz izanen iz orotako lehena.

Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden,
Bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen,
Zeren ezein skripturan erideiten ezpaitzen;
Orai dute ikasiren nola gauza hona zen.

Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruya,
Ezi huyen lengoajia izanen da floria.
Printze eta iaun handiek orok haren galdia,
Skribatuz hal balute ikhasteko desira.

Desir hura konplitu du Garaziko naturak
Eta haren adiskide orai Bordelen denak,
Lehen inprimitzalia heuskararen hura da;
Basko oro obligatu iagoitiko hargana.

Etai lelori bailelo leloa zarai leloa!
Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara.

DEBILE PRINCIPUM MELIOR
FORTUNA SEQUATUR.

LINGUAE VASCONUM PRIMI
tiae per Dominum Bernardum Dechepare
Rectorem fancti michaelis veteris.
(1545)

Urte luzeak igaro dira
Bernat Dechepareren
bertso hauetatik hona.

Tartean hainbat saio izan dira.

Zeurea izan dadila
fruitu oparoa
emanen duena.

Zorionak eta
urte askotarako!

EUSKAL HERRIKO



TXALAPARTA

Gure liburuak


78 Postakutxa

TAFALLA (Nafarroa)

Tel. (948-70 32 77)

MARGOTZE INSTALAZIO AUTOMATIKOAK

GEINSA



MARGOTZERAKO
ERROBOT
ELEKTRONIKOAK

Fabrikaziorako programa

- ◀ Deskoipeztaketa, garbiketeta, fosfatoketa etabarretako kateak
- ◀ Hauts margotzerako kabinak
- ◀ Margotze likidorako kabinak (eskuzkoak eta automatikoak)
- ◀ Aireztaketa tunelak
- ◀ Erradiazio bidezko lehorte labeak
- ◀ Konbekzio bidezko lehorte labeak
- ◀ Gainpresio bidezko margotze eta lehorte kabinak
- ◀ Margotzerako errobotak
- ◀ Errobotak

GEINSA. Legazpi, z/g
Telefona: 94 - 467 60 91
Telexa: 34112 GEINSA
Telefax: 94 - 467 63 23
48950 ERANDIO - BILBO
(Bizkaia)